



Udalak protokolo bat diseinatu du haize bolada bortitzen aurrean jarduteko

Orain arte hartu izan diren neurriak jasotzen ditu eta 100 Kilometro ordutik gora jarriko da martxan

Udalak “Haizeak” protokoloa diseinatu du haize bolada bortitzen aurrean erantzun koordinatu eta eraginkorra eman ahal izateko. Txosten honek orain arte hartu izan diren neurriak jasotzen ditu eta 100 Kilometro ordutik gora jarriko da martxan.

2015-2017 aldiko datuak aztertuta ondorioztatzen da, hiriak urtean batez beste 25 egunetan jasan dituela haize gogorreatik gertakarien ondorioak. 25 egun horietatik, gutxi gorabehera 23tan Abisu Horiak izan dira, eta 2tan, Alerta laranja. Haizeen gertakariengatik abisuak ia urte osoan zehar banatzen dira, baina neguko hiru hilabeteetan (abendua, urtarrila eta otsaila) biltzen da haien kopururik handiena, gutxi gorabehera % 65a. Hilabete horietan zehar, haizeagatik abisuek ipar-mendebaldeko norabidea izan dute eta denboralez, euriz eta ekaitzez lagunduta etorri dira.

Herri Babeseko zinegotzi **Martín Ibabek** azpimarratu duenez “orain arte hartzen ziren neurriak eraginkorrak baziren ere, protokolo hau beharrezkoa zen udal zerbitzu guztiak modu koordinatuan eta eraginkoragoan aritzeko”. Hori lortu ahal izateko, Babes Zibileko honako bost oinarrizko irizpide hauek aplikatu dira: aurrea hartzea, prebenitzea, antolatzea, berehalako erantzuna eta esku-hartzea, eta leheneratzea eta ebaluazioa” goraipatu du.

Ibabek azaldu duenez, “protokolo honek bermatu nahi du, besteak beste, pertsonen segurtasuna, eragin ditzakeen kalteak minimizatuz; hiriko ohiko jardueren funtzionamendua; eta komunikazio bideen ohiko funtzionamendua nahiz pertsonen zirkulazioa.

Zinegotziak aipatu duen beste helburuetako bat da, “batetik, kasu bakoitzean dagokion jarduteko prozedura definitzea, Donostiako pertsoneri, ondasunei, ingurumenari eta kultur ondareari eragindako kalteak saihesteko eta/edo minimizatzeko eta, bestetik, haize zakarreko egoeretan esku hartzen duten zerbitzuen jardunak koordinatzea”.

Faseak

Haizearen abiadurak zehaztuko ditu egoera ezberdinak eta jarduteko moduak. 80 Km/h-ra arte hiria normaltasun egoera batean dago. 80 eta 100 Km/h-tik gorako haize boladatik aurrera, hiria alerta egoeran egongo litzateke eta 100 Km/h-tik gora Larrialdia fasean.

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Herri Segurtasuna eta Herri Babesa
Seguridad Ciudadana y Protección Civil

Alerta fasea

80 eta 100 Km/h-ko bolada maximoetatik gora hiria alerta fasean egongo da. Egoera honetan udal barneko eta kanpoko zerbitzu guztiak alertan jarriko dira: Udaltzaingoa, Mugikortasuna, Suhiltzaileak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuak, Prentsa, Sustapena... Helburua da hiriko zonalde eta elementu ahulen gaineko zaintza areagotzea.

Fase honetan erreketak debekatuta daude, parkeak ez dira itxiko, eremu arriskugarrien eta zaurgarrien zaintza berezia egingo da, bai eta instalazio eta jarduera zaurgarriena eta bide publikoan arriskua eragin dezaketenena ere → edukiontziak, obrak, garabiak, aldamiok, teilatu hegalak, markesinak, kartelak, hesiak, terrazak, etab.

Larrialdi fasea

Protokoloak 2 motatako egoerak aurreikusten ditu. Batetik, aurreikusita dagoen egoera bat, alegia, Euskalmeten iragarpen bat jasotzen denean 100 Km/h baino gehiagoko haize bolada egongo dela komunikatzen duena. Bestetik, bat-batekoa, aurretiko abisurik gabe 100 Km/h-tik gorako bolada maximoak detektatzen direnean. Bi egoera horietan hiria Larrialdi fasean egongo litzateke.

Babes Zibilak egoeraren analisia, ebaluazioa eta sailkapena egingo du. Hori egin ondoren, Larrialdi Egoeran aurreikusitako ekimen guztiak martxan jarriko dira eta Haizeak protokoloa martxan jarriko da: parkeak partzialki edo guztiz itxiko dira, eremu arriskugarrien eta zaurgarrien zaintza areagotuko da, bai eta instalazio eta jarduera zaurgarriena eta bide publikoan arriskua eragin dezaketenena ere → edukiontziak, obrak, garabiak, aldamiok, teilatu hegalak, markesinak, kartelak, hesiak, terrazak, etab. Bestalde, herritarrak jakinaren gainean egongo dira webgune, Alerta Zerbitzu eta sare sozialen bidez. Badaezpadako neurri gisa, normalean aktibatzen diren baliabideak edo bitartekoak indartuko dira.

Fase honetan Aiete, Cristina Enea, Urgull eta Miramar parkeak partzialki edo guztiz itxiko dira, betiere ingurune hauetan protokoloak ezarrita dituen jardueren araberako neurriak kontuan hartuz. Larrialdi fasea amaitzen denean eta parkeak ireki baino lehen, ikuskapen bisuala egingo da egoera balioesteko asmoz.

Protokoloak parke hauen sarreretan seinaleztapena berri bat aurreikusten du. Bertan, haize bolada gogorak dauden egunetan parkean egoteak izan ditzakeen arriskuez ohartaraziz bai eta haize bortitza dela-eta, ixtearen arrazoiak adieraziz. Otsailean seinaleztapen informatibo berri hau jarriko da.

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Herri Segurtasuna eta Herri Babesa
Seguridad Ciudadana y Protección Civil

2015-2017 aldiko haize gertakariak

Donostiak haize gogorrek direla-eta, 2015-2017 epealdian, gertakarien ondorioak jasan ditu, batez beste 25 egunetan: zehazki, 19 egun 2017an, 35 egun 2016an eta 22 egun 2015ean.

Esku hartzeen heren bat (% 37) hiriko hondakin solidoen edukiontzien lekualdaketek eta haien ondorioek eragin zituzten; % 19 zuhaitz eta adar erorikoen ondorioz izan ziren; beste % 19 hesiak, toldoak, itzalkinak, kartelak, farolak edo semaforoak mugimenduek; eta % 25a obretan (aldamioak, garabiak, hesiak, obrako etxola, eta abar) edo eraikinetan (estalkiak, leihoak, erlaitzak, eta abar) eragina izan zuten.

D
o
n
o
s
t
i
a
,
2
0
1
9
k
o

u
r
t
a
r
r
i
l
a
r
e
n

2